

«GURE PUTAKUMEAK»

Babestuta, zigorgabe, bake-bakean hil da Luis Posada Carriles anticastrista Floridan

ATZERRIA / Mikel Zubimendi Berastegi

Duela bi aste zendu zen Luis Posada Carrilles, Floridan, bera bezalakoentzako paradisuan. CIAko ekintzaile kubatar honek Latinoamerikan odol arrasto itzela utzi zuen. Antikomunismoaren izenean, gerra zikinaren antolatzaile gisa, milaka lagun hil zituen. AEBek haren aurkako estradizio eskaerei uko egin ostean, inpunitate osoz hil da, ohean.

Ameriketako Estatu Batuetako presidentetzaren izandako Franklin Delano Rooseveltena da artikulu honi izenburua ematen dion ideia aski ezaguna. Nikaraguako diktadore Anastasio Somoza izenburua ematen dion ideia aski ezaguna. «Baliteke Somoza putakume bat izatea, bai, baina gure putakumea da». Hots, egindako sarraskiak eta isuritako odolak ez du axola «gure» alde jardun badu, «guk» agindutakoa betez, «gure» laguna bada, «guk» dugu hura zaintzeko eta babesteko ardura. *That's American way*, hori da dotrina ofiziala, hori jokabide estandarra.

Norbaitek zalantza balu, ezin argiago geratu berri da beste behin ere. Antikomunismoaren izenean mertzenario gisa arituz Latinoamerika heriotzaren eskuadroien bitartez odolatan blaitu eta putzu gorri bete zuen Luis Posada Carriles 90 urterekin zendu berri da. Francisco Franco espainiar diktadorea bezala, ospitale ohe batean hil da, Floridan, bake-bakean, egin edo agindu zituen krimenengatik erantzun gabe, inpunitate osoz.

Jarraitzaile zituen Miamiko kubatar askorentzat heroi bat izan zen, antikomunista neka-

gaitza, askatasunaren aldeko borrokalaria, bizi osoa borrokari emandakoa. Posada Carriles, baina, ez zen sekula ohorearen guda-zelaian borrokatu. Ez zen sekula Kubako Armada Errebeldeko soldaduen kontra aritu. Bere estrategia militarra oso bestelakoa izan zen: sorteri zuen Kuba inork bisita ez zezan eta uhartearekin inork harreman ekonomiko eta politikorik ez izatea helburu terrorea zabaldu zuen. Hartara, zibilei, turistei, hegazkinei... egin zien eraso. Latinoamerikako beste herrialde batzuetako sektore aurrerazale eta engaiautuenen kontrako tortura mekanizatua eta heriotza eskuadroiak ere antolatu zituen.

TERRORE BIOGRAFIA BELDURGARRIA

Kuban jaiotako AEBetako CIA Inteligentzia Agentzia Zentraleko kide eta anticastrista porrokatuak eragindako terrorearen biografia beldurgarria da. Kuban, Venezuelan, Nikaraguan, El Salvadorren, Allenderen Gobernuako diplomatiko txiletarren kontra... zuzendu zituen ekintzen arrastoa ezin asmatuzkoa da. Kubako Cienfuegos hirian sortua, Habana-ko Unibertsitatean ikasle zela ezagutu zuen Fidel Castro. Firestoneko enkargatua zela harapatu zuen Iraultzaren ondoren, uhartea utzi zuen,

lehenik Argentinara joateko, eta, ondoren, AEBetara.

Kubako Iraultzaren kontrako 1961eko Cochinos badiako inbasioan parte hartu zuen, eta, porrot ikaragarri haren ondoren, AEBetako Armadan izena eman eta tenienteorde izatera heldu zen. 1965ean CIAk erreklutatu zuen, Latinoamerikako militar eta mertzenarioen entrenamendurako Floridako zentro bateko instruktore gisa. Dena eta denetarik egiten erakutsi zioten bertan: leherkariak prestatzen, sabotajeak egiten, torturatzen, hilketa selektiboak egiten... 70eko eta 80ko hamarkadetan Venezuela, El Salvador, Txile eta Guatemala-ko zerbitzu sekretuentzat egin zuen lan. Nikaraguan *contra*-k armatzen ere aritu zen ere, «Iran-Contra» eskandaluaren baitan Oliver North Marineen teniente koronelaren esanetara jardunez.

Ez zuen sekula Kubako Armadaren kontra jo. Oso bestelako estrategia izan zuen: terrorea zabaltzea inork Kubarekin harreman ekonomiko eta politikorik ez izatea helburu

Habanako hotel batean bonbaz hildako turistaz honakoa esan zenuen inolako damurik gabe: «Italiar hori une txarrean eta leku txarrean zegoen, hala ere, ume bat bezala egiten dut lo»

Luis Posada Carrilesen artxiboko irudia, Latinoamerika odolez blaitu eta milaka lagun hil zituen CIAko ekintzaile anticastrista.
AFP



CIAk erakutsitakoa azkar baitan jarri zuen Latinoamerikako diktadura militarren esku Posada Carrilesek, betiere agentziaren kontrolpean. Augusto Pinochet agindua betez, Orlando Letelier Allenderen ministro ohia eta bere laguntzaile estatubatuarra hil zituen, New Yorken. Che Guevara Nazio Batuetan diskurtsoa ematen ari zela, bazuka batekin eraikinari eraso zion, New Yorken bertan. 1976an, gerora AEBetako presidente izango zen George W. Bush CIAko buru zela, Barbadosen



Cubana airelineako hegazkin bat leherrarazi zuen, 73 lagun hilez –tartean Kubako jubeni- len esgrima selekzio osoa–. 90eko hamarkadan Kubako hainbat hoteletan lehergai- luak jartzeko kanpaina antola- tu zuen, besteak beste turista italiar bat hilez. “The New York Times” egunkariak egindako elkarrizketa batean, damurik gabe, honakoa adierazi zuen: «Italiar hori une txarrean eta leku txarrean zegoen, baina, hala ere, ume bat bezala egi- ten dut lo». Hamarkada bere- an, Hondurasen 40 eraso egin zituen leherkariak erabilita.


ESTRADIZIOTIK SALBU

Obsesio zuena 2000n lortzear egon zen, hots, Fidel Castro hiltzea. Kubako zerbitzu sekre- tuek eragotzitako atentatua prestatu zuen komandantea hitz egitekoa zen Panamako unibertsiteate batean. Bedera- tzi kilo C-4 leherkarirekin kon- ferentzia areto osoa lehertzear egon zen. Espetxeratu egin zu-

ten, baina Mireya Moscoso Pa- namako lehendakariak, Bus- hen gertuko aliatua, Auzitegi Gorenak gerora ilegal jotako presidentearen barkamena eman eta bere nagusiek buel- tan eraman zuten AEBetara.

Zahartzaroan Miamin bizi izan zen. Artista gisa aritu zen, koadroak pintatuz, telebista eta irratietan elkarrizketak emanez eta George W. Bush presidente ohiaren hainbat konferentzian lehen lerroan agertuz. Hainbat estradizio es- kaera egin zituzten Latinoa- merikako herriek bere aurka, baina AEBek beti bota zituzten atzera. Bere heriotzaren egu- nera arte babestu zuten. Azken buruan, beste hainbat bezala, euren «putakume» horietako bat zen AEBentzat, denetan so- natuena agian. Eta gauza jaki- na da: «putakume» izan ala ez, egindako sarraskiak gorabehe- ra, AEBetan inportanteena eu- rena zutela da, eta, bertan, oso argi dute euren alde jardunda- koak beti zaindu behar direla.

FLORIDA: GERRA ZIKINAREN BURUEN PARADISU



Jose Guillermo Garcia

El Salvadorko Armadako jenerala, El Mozote eta Sumpuleko sarraskiak egin zituzten in- dar militarren burua. Bi sarraskiotan 1.397 zibil hil zituzten. Gerora, Defentsa ministro zela, Oscar Romero monsinorearen hilketaren gaineko ikerketa denak blokeatu zituen.



Carlos Eugenio Vides

Jose Guillermo Garcia bezala El Salvadorko Armadako jenerala eta Defentsa ministro ohia. Makina bat sarraskiren arduradun, 1980an gertatutako lau moja estatubatua- rren bortxaketa eta hilketagatik egin zen ezagun, eta, batez ere, 1979tik 1992ra arteko gerran milaka salvadortarren tortura meka- nizatuaaren arduradun gorena izateagatik.

Pedro Pablo Barrientos

Pinochetek zuzenduriko Txileko Armadako tenientea izan zen. Victor Jara poeta, kantau- tore eta ekintzaile politiko ezaguna hil zuen brigada zuzendu zuen. Hil aurretik, gitarra inoiz gehiago jo ez zezan eskuko hatzak guz- tiz txikitu zizkion. Santiagoko estadio nazio- nalean sartu zituzten milaka “komunista” torturatu eta desagerraraztearen arduradun nagusienetakoa da.



Telmo Ricardo Hurtado

“Andeetako harakina” bezala ezaguna, Sen- dero Luminoso gerrilla maoistaren aurkako Peruko Armadako unitatearen arduraduna izan zen. Berak zuzenduriko indarrek 74 ne- kazari hil zituzten 1985ean Accomarcan; he- rritarrak bi etxetan giltzapetu eta granadak jaurti zituzten barrura, guztiak kiskaliz.

